


LUKENE


SUGEGORRI TXIRENE



Zorionak Lukene
3




Lukene oso sugedorri maitagarria da:
berdea eta beltza, beltzak ditu begiak, eta mihia,
gorria eta oso-oso luzea.



Gaur haren urtebetetzea da.
14 urte betetzen ditu eta lagunak opari asko eman dizkiote:
sagarra, gozokiak, lepoko berri bat, jertsea eta pilota bat.
Urtebetetzeko postal ugari ere ailegatzten ari zaizkio.




Arratsaldean urtebetetzeko jaia ospatzen ari dira.
Zorionak zuri abesten dute eta urtebetetzeko janaria jaten
dute: bokatak, gozokiak, irabiakiak, patata frijituak,
hanburesak, galletak eta
izugarri polita den urtebetetzeko pastel handi bat,
14 kandela eta guzti.



Jaia amaitu da eta lagunek agur esan diote:


-“Agur, Lukene, zorionak!”

-“Agur, eskerrik asko. Bihar arte”



Lukene ez dago batere pozik orain.
Jaia oso ona izan da, baina orain dena hankaz gora eta
zikin dago.

-“Ez dago inolako arazorik” -esaten du Maialenek
-“elkarrekin txukunduko dugu dena. Ez kezkatu”



Ordu erdi geroago, dena dago apainduta eta garbi-garbi.
Orain eseri daitezke eta lasaitu.
Oso urtebetetze polita izan da!

3. Zorionak, Lukene!

1. Erantzun lehen orrialdeari buruzko galderei:


- Nor da Lukene?
- Nolakoa da?
- Zer koloretakoa da?
- Zer koloretako begiak dauzka?
- Nolakoa du mihia?
- Zenbat urte ditu?
- Sugorri bat izateko, zaharra edo gaztea da?

2. Erantzun bigarren orrialdeko galderei eta egin ariketak:


- Zer egun da gaur?
- Noiz da zure urtebetetzea?
- Galdetu zure hiru laguni eta bete taula:

Izenak	Urtebetetzea

- Zenbat opari jaso ditu Lukenek?



- Elkartu hitza eta irudia:



- Idatzi Lukeneri urtebetetzeko postala, beheko testuko hitzak ordenatuz:

Kaixo Lukene:	
--	--

Zorionak askotarako zure laguna zure urtebetetzean eta urte

3. Egin hirugarren orrialdeari buruzko ariketak:

- Ikasi abestia



Zorionak,
 Zure urtebetetzean,
 Zorionak
 Eta urte askotarako, zorionak
 Belarritik tiratzean, zorionak
 Eta musu bat, zuretzako.

